



AZIRKARTE GIZARTERATZEKO ELKARTEA

<http://azirkarte.org>

azirkarte@gmail.com

1. ZER GARA?

Irabazi-asmorik gabeko elkarre bat gara, bokazio soziala duten hezitzaileek osatua. Honako hauek dira gure helburuak: batetik, dibertsitate funtzionala duten pertsonen jardueren fisikoetan eta kirol arloko jardueretan parte hartzea eta gizarteratzea; bestetik, kolektibo horren potentziala ikusarazten lagunduko diguten ekintzak bultzatzea; eta azkenik, bi praktika horiek sustatzeko aukera emango duten akordioak egitea beste erakunde batzuekin.

2. NORTZUK GARA?

Hezkuntza-munduko hiru lagun gara. Kirol- eta aisialdi-jardueretan esperientzia izanik, prest gaude dibertsitate funtzionala duten pertsonen jardueren fisikoak eta kirol-jarduerak egiteko aukera eskaintzeko, norberaren garapenean eta ongizatean laguntze aldera.

3. ZER EGITEN DUGU?

Oinarria

Desgaitasunen bat duten lagunei buruzko hainbat azterlan bat datoz adieraztean lagun hauen kezka nagusietakoa dela gizarte harreman urriak izatea. Izan ere, oso normala da desgaitasunen bat duten pertsonen zailtasunak izatea beren gizarte-harremanetan, ez beren ezaugarriengatik edo izaeragatik, baizik eta gainerako lagunek nolabait gaitzesten dituztelako. *Harremanetarako urritasun* terminoa erabiltzen da fenomeno horren berri emateko, eta horrek, aldi berean, desgaitasuna duten pertsonen gizarte-bazterketako egoera deskribatzeko balio du.

Hori dela eta, 2016-2017 ikasturtean, gure ikasleen harremanetarako urritasuna ikusita, Gasteizko Calasanz ikastetxeko 2. zikloko Zereginen Ikaskuntzarako Gelako neska-mutilekin gizarte-zirkuari buruzko lantegi bat egiten hasi ginen, garapen pertsonala eta soziala, adierazpena, komunikazioa eta, azken batean, aniztasuna eta inklusioa sustatzeko. Asteroko lantegi baten bidez, hainbat trebetasun lantzen hasi ginen: acrosporta, malabareak, akrobaziak eta soka-saltoak. Lehenengo ikasturteari amaiera emateko, landutakoaren lagin bat aurkeztu genion gure ikastetxeko hezkuntza-komunitateari.

Ikusita ikasleen ilusioa, motibazioa eta gogoia, 2017-2018 ikasturtean beste urrats bat ematea erabaki genuen. El Sauce (Sahatsa) izeneko ikuskizun bat sortu genuen, zeinaren bitartez aukera izan nahi genuen zabaltzeko, sensibilizatzeko eta erakusteko kolektibo horrek, "ezgai"-tzat hartutako horiek, nahi duten guztia lor dezaketela.

El Sauce (Sahatsa) lanak gutako bakoitzak gizartean duen garrantziaz hitz egiten digu.

https://www.youtube.com/watch?v=vz_H8kw6wn8

Inklusioa benetakoa izateko, desgaitasuna duten eta ez duten pertsonen kirol-esparruak partekatzea eta kirola batera egitea oso garrantzitsua da; hartara, 2018-2019an Futbol Inklusiboa izeneko jarduera berri bati ekin genion, astean behin kirola eta esparruak partekatuz eta futbola gizarteratzeko tresna bihurtu genuen.

Ikasturte hartan bertan sortu genuen AzirkArTe Elkarteoa.

Eta zergatik **AzirkArTe**?

Goiz batean, gosalduta bitartean, komentatzen hasi ginen taldeari zein izen jarriko genion. Aukera batzuk aztertu ondoren, azkenean aho batez erabaki genuen izenik onena AzirkArTe izango zela, hainbat arrazoirengatik:

- *AAT* siglak, Aula de Aprendizaje de Tareas, elkartearen izenean letra larriz agertzen da —euskaraz Zereginen Ikaskuntzarako Gela—. Bada, horri *arte* hitza gehitu genion; izan ere, gure ustez neska-mutilok benetako artea egiten dute, bakoitzak egiten duen lan pertsonal guztiagatik (beldurrak, erronkak, gatazkak garaitzen dituzte). Bestalde, euskarazko ZIRKU hitza erabili genuen; azken batean:

A zirk—acércate (hurbildu) zirkura—
AAT —gelako ikasleekin—
ArTe —egiten dugu eta—

- Gure asmoa zen gu ezagutu nahi gaituen edonor gonbidatzea.

GIZARTE-ZIRKUA

Gizarte-zirkua arlo sozialean eta komunitarioan esku-hartzeko estrategia berritzailea da, mundu osoko hezkuntzaren eta psikologiaren eremu askotan hedatzen ari dena. Hainbat zirku-diziplinaren irakaskuntza praktikoa oinarrituta,— malabareak, akrobaziak, airekoak, orekak, clownak, eta abar— gizarte-zirkua egoera sozial zaugarrian dauden lagunengana bideratzen da, hala nola bazterkeria-arriskuan dauden adingabeak, desgaitasunen

bat dutenak, indarkeriaren biktima diren emakumeak, presoak edo droga-mendekotasunekin arazoak dituzten pertsonak. Bestalde, funtsezkoa da pertsona hauek ahalduz lortzea gizartea eraldatzeko prozesuak errazago gerta daitezen.

Ikuspegi horretatik, hainbat zirku-diziplina irakastea eta praktikatzea ez da berez helburu bat; hau da, xede nagusia ez da ikasitako malabare, akrobazia edo orekak teknikoki eta perfektuki gauzatzea, baizik eta pertsonaren garapen integrala da garrantzitsuena. Izan ere, geroago ikusiko dugunez, gizarte-zirkuan arreta, autoestimua, iraunkortasuna, besteekiko konfiantza, eta horretarako gaitasuna landu egiten dira dira.

*Gizarte-zirkuan prozesua da garrantzitsuena, ez emaitza.
(Iturburua: Luis Montero)*

Desgaitasunak dituzten lagunen talde batentzako zirku proiektu batek sen onaren eskemak hausten ditu erabat. Horrelako proiektu bat abian jarri aurretik, ziur aski pertsona askok ez dute haiengan sinestuko, ezinduak direlako eta normalean "ezgai"-tzat hartzen dituztelako. Gizarte-zirkuak erakusten du pertsona horiek malabareak, akrobaziak, orekak edo trapezioak egiteko kapaz izateaz gain, proposatutako guztia lortzeko gai direla."



Zergatik zirkua kolektibo honekin?

- Zirkuko jardueren bidez garapen pertsonala eta soziala bultzatuko duen espazio bat eskaini nahi diegulako.
- Nahi dugulako espazio hori gizarte-zirkua sakontzen eta sustatzen lagungungarria izatea eta bitartekoa izatea proiektu komun bat sortzeko; hartara, batzen diren identitate desberdinak adierazi, komunikatu eta elkartzeko aukera izango dugu.
- Proiektu horiei esker, gizarte-zirkua inklusio-tresna gisa zabaltzen eta normalizatzen lagunduko diguten jarduerak egin ahal izango ditugulako.

Jarduera-eremua

- Motorra: mugimendu-trebetasun oinarrizkoak eta espezifikoak, gaitasun fisikoa, oreka, koordinazioa, gorputz-kontrola, gorputz-adierazpena...
- Kognitiboa: estrategiak eta prozesuak planifikatzea eta, ondoren, praktikan jartzea produktu bat egiteko.

- Afektibo-soziala: pertsona baten eta haren ingurunearen —lankideak, hezitzaileak, materialak, espazioak...— arteko jokabideekin eta jarrerekin zerikusia duten ikaskuntzak.

Hezkuntza-helburuak

- **Autoestimua** garatzen laguntzea: bazterkeria edo arrisku egoeran dauden kolektiboekin lan egiten dugunean, ohikoa da beren buruarengan segurtasun falta duten gazteak aurkitzea. Zirku-diziplinen bidez, hasiera batean ezinezkoa edo oso zaila ematen duena gauzatu ahal izango dute. Lorpen eta garaipen txiki bakoitzeko, parte-hartzaileen konfiantza handitu egingo da, erronka berriei aurre egin eta euren burua gaindi dezaketela jabetuko baitira.
- **Autonomia eta autoerregulazioa** garatzen laguntzea: orekari eustekoak eta malabarismoak bezalako jardueren bidez, parte-hartzaileek beren emozioak kontrolatzen ikasten dute —frustrazioarekiko eta pazientziarekiko tolerantzia, adibidez— , helburu errealistak ezartzeaz eta horiek lortzeko estrategiak garatzeaz gain. Horrek guztiak sustatuko du parte-hartzaile bakoitzarengan bere burua hobeto ezagutzea.

- **Taldekilde izatearen loturak** bultzatzea: gure gazte askok ez dakite nolakoa den talde bateko kide izatearen sentimendua. Talde-jardueren bidez lantzen dira gatazkak ebaztea, iritziak elkartrukatzea eta erabakiak taldean hartzea; hartara, ikaskuntza demokratikoa planteatzen da eta horrek funtzionatzen du talde batekiko eta gizartearekiko lotura gisa.
- **Elkartasunaren garapena** bultzatzea: zirkua elkarrekiko laguntzan eta talde-lanean oinarritzen da; beraz, jarduerak taldeka egin ohi dira. Horri esker, funtsezko balio batzuk gara daitezke, hala nola errespetua, empatia, elkartasuna eta erantzukizuna.
- Publikoaren aurrean esku hartzea erronka izan daiteke horietako askorentzat, baina gure jardueren bidez hezkuntza-komunitatearen **sentsibilizazioa** bultzatu nahi dugu.
- **Arriskuak hartzeko orduan kontrola** erraztea: zirkuko artista batzuek oso ariketa ausartak eta arriskutsuak egiten dituzte. Diziplina berri bat irakasteko orduan, arauak derrigorrezkoak izatetik segurtasuna sustatzeko bide izatera pasatzen dira. Arriskuez jabetzeak parte-hartzaileei lagunduko die beren ibilbide pertsonalean, beren burua zaintzen baita gogoeta egiteko gaitasuna garatzen ere.

Gure dekalogoia

- Denok gara desberdinak, gutako bakoitza berezia delako.
- Akatsa ikaskuntzaren parte bat da.
- Ikastea besteak zaintzen eta geure burua zaintzen, elkarri laguntzen eta elkarri laguntza eskatzen.
- Gure funtsezko osagaiak: errespetua, ahalegina eta taldea.
- Barre eragiteko ez da umiliatu behar.
- Malabareak egiteko jakin behar da erortzen garen bakoitzean aurrera egin dugula.
- Orekari eusteko, gure gorputza kontrolatu eta ezagutu behar da.
- Akrobaziak egiteko, gure indarguneak eta ahuleziak ezagutu behar ditugu.
- Trukorik onena ez da zailena, ondoen ateratzen zaidana baizik.
- Zirkua guztiona eta guztiontzat da.

FUTBOL INKLUSIBOA



Jarduera honek aukera eman nahi die desgaitasuna duten eta ez duten pertsoneri tarte bat partekatu nahi badute futbolarekin zerikusia duen entretenimendu eta jarduera fisiko batean Estadio Fundazioko futbol-zelaian.

Azirkartek honako helburu hauek ditu proposamen hau dela eta:

Lehenik eta behin, kirol-jarduera bat eskaintzea, kasu honetan futbolarekin zerikusia duena, non desgaitasuna izan zein ez elkarrekin arituko garen espazio berean eta aldi berean. Proposatzen diren kirol jarduera fisikoek eragin nahi dute hainbat alderditan hala nola, bizikidetzan, nork bere mugak gainditzean eta ahaleginean. Hala ere, ez dugu ahaztu behar aisialdiko jarduera bat dela, eta bertaratzen garen guztion artean giro ona nagusitzen dela, kirol kolektibo honek berez duen profil lehiakorra alde batera uzten dugulako.

Elkartetik proposatzen dugun beste helburu bat da gizarteari ikusaraztea dibertsitate funtzionala duten lagunek beren denbora librean bizi duten errealitatea, hau da, ezin dutela modu aktiboan eta inklusiboan parte hartu

erakundeek eta kirol-klubek programatutako aisialdiko jardueretan.

Azkenik, Azirkartetik gizartea sentsibilizatu nahi dugu, gazteei aukera emanaz parte hartzeko gurea bezalako elkarteetan, eta ondorioz, integrazio-arazoak dituzten hainbat kolektiborekin gizarteratzearen alde lan egiteko. Horrexegatik, gure futbol inklusiboan boluntario batzuk ditugu; musutruk parte hartzen dute entrenamendu-saio horietan eta euren aisialdiaren tarte bat dibertsitate funtzionala duten pertsonekin partekatzen dute, eta hori funtsezkoa da benetako inklusiorako.

Metodologia

Entrenamenduak diseinatzeko gure ustez ezinbestekoak diren honako parametro hauek erabiltzen ditugu:

- Entrenamenduak ludikoak izan behar dira, futbola aitzaki, gure jokalariek ondo pasa dezaten.
- Entrenamenduek beti izan beharko dituzte helburu teknikoak, taktikoak eta, jakina, funtsezko balioen lanketan eragina dutenak: ikaskuntza-erritmoa errespetatzea, nork bere mugak gainditzea, bizikidetzatza, enpatia, etab.
- Lortu nahi ditugun helburu teknikoak: baloia pasatzea, kontrolatzea, ondo bideratzea, botatzea eta driblatzea, baina beti ere ariketak eta jokoak gure jokalarien mailara egokituta.
- Lantzekoak diren helburu taktikoak: pase-lerroa, laguntzak, zabaltasuna, desmarkatzea, banakako eta zonako markatzea, jokoan aurrera egitea.

- Entrenamenduetako lehentasunetako bat mugimendua da, ardatz nagusia baita; beraz, saio horietako dinamikek saihestu beharko dituzte oso etenaldi luzeak edozein jarduera egitean.

Gure dekalogoia

- Har nazazu pertsona bat bezala, horixe naiz eta.
- Errespetatu nire ikaskuntza-erritmoa nik zurea errespetatzen dudana bezala.
- Barre egin nirekin, eta ez nitaz.
- Onartu dena ez dudala primeran egingo, inork ez du egiten eta.
- Nik ere erakutsiko dizut dakidan guztia.
- Agian ez dut erantzungo espero duzun bezala, baina hobeto egiten saiatzen ari naiz.
- Zure laguntzarekin, ni ere bai taldekide.
- Desgaitasunen bat dugun pertsonak gara, sobera gaituak.
- Eskerrik asko zure kirol gogokoena nirekin partekatzeagatik.
- Futbola guztiona eta guztiontzat da.